

Nola kontatu IPUIN bat?



**Ipuinak kontatzeko teknikak
lantzeko materiala**

NORENTZAT: Material hau 12 urtetik gorako gaztetxoekin erabiltzeko dago prestatuta, adin mugarik gabe.

HELBURUA: Ipuin kontalaritzaren magian murgitzea eta ahozkoasuna lantzea, jolastuz eta teknika erraz batzuk erabiliz.

GAIA: Ahozko literatura ahoz aho transmititzen dena da, belaunaldiz belaunaldi iritsi zaigun ondarea. Material honen asmoa gaztetxoak ipuinak sortzen eta kontatzen jartzea da, haiek ahozko transmisioaren magian barneratzea. Horretarako, Amaia Elizagoien “Ameli” eta Joxe Mari Karrere ipuin-kontalariak izan ditugu bidelagun. Abiapuntu gisa, berriz, Ahotsak.eus proiektuan adinekoei jasotako ipuinak.




<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/nola-kontatu-ipuin-bat>

Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu: kontalaritzari buruzkoa da ikusiko dugun bideoa. Aurre-ezagutzak aktibatzeko, gisa honetako galderak egin ditzakegu:

- Beti gaude kontatzen, nahiz eta ez garen konturatzen. Trebeak zarete gauzak kontatzen?
- Zer da kontalaritza (kontatzearen artea)? Gustatzen al zaizue txiste eta anekdotak kontatzea? Badakizue arreta erakartzen? Barre eginarazten?
- Ipuinzaleak zarete? Zer ipuin dakizkizue? Kontatu!
- Zer ezaugarri dituzte ipuinek?

Ipuina [narrazio mota](#) bat da, fikziozkoa. Ipuina edo istorio laburra: irudimenak sortutako kontakizuna, bereziki alegiazkoa (baina ez beti), denbora tarte batean eta toki batean pertsonaia bati/batzuei gertatutako ekintzak kontatzen dituen.


- 
- Nola kontatu ondo ipuin/istorio bat?
 - Zer izan behar dugu kontuan (ahots-tonua, erritmoa, gorputz-adierazpena...)? Zerrenda osatuko dugu, ahoz.
 - Zertaz hitz egitea gustatzen zaizue (gustuko gaiak)?
 - Ikasi al daiteke istorioak/ipuinak ondo kontatzen ala kontalariak berezko dohaina izan behar du?

Bideoa ikusi bitartean

1. Arreta pizten diona gogoan hartzeko eskatuko diegu, gero komentatzeko.
2. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak argitu.
3. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dugu, informazioari etekin guztia ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulermena ziurtatu. Zalantzak argitu. Aurre-ezagutzak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:




3. Nahiz eta batzuetan muga lausoa izan (era guztietako antzezlanak daudelako), interesgarria gerta dakiguke bereizketa egitea: kontalaritza vs antzerkia. Kontalaritzan:
 - Narratzailea zu zeu zara, ez pertsonaia bat: ez duzu antzestu behar
 - Inprobisaziorako aukera handiagoa duzu: istorioa publikoaren, lekuaren eta egoeraren arabera alda dezakezu
 - Ez duzu ezer behar (atreztorik, mozorrorik... eszenatokirik ere ez)

Ipuin beraren bi aldaera ikusiko ditugu, "Hontzaren ipuina"ren bi adibide:

- [Joxe Mari Karrerarena](#)
- [Amelirena](#)

Haxe da ipuinaren jatorrizko bertsioa, [Aramaion jaso](#) [Ahotsak.eus](#) proiekturako.




Bi bertsioak berriz ikusi, oraingoan darabiltzaten kontaketa-estrategiei erreparatuz (binaka jarrita egin daitezke, bikote bakoitzak kontalari bat aukeratuta):

| | | |
|--|---|--|
| <i>Tonua</i> | | |
| <i>Erritmoa</i> | | |
| <i>Pertsonaien izaera</i> | <ul style="list-style-type: none"> ·Ahotsa ·Keinuak | |
| <i>Hizkuntza-baliabideak</i> | <ul style="list-style-type: none"> ·Onomatopeiak ·Esamoldeak ·Formulak ·Errepikapenak ·Exajerazioa | |
| <i>Kontalariaren gorputz-adierazpena</i> | <ul style="list-style-type: none"> ·Keinuak ·Begiradak ·Espazioaren erabilera | |

Nahi izanez gero, ipuinaren egitura eta edukia ere landu ditzakegu (ipuinak sortzeko baliagarria gerta dakieke):

| | |
|--|--|
| <i>Lekua eta denbora</i> | |
| <i>Pertsonaia(k)</i> | |
| <i>Egitura (hasiera-gertaerak-bukaera). Arazoak, ekintzak eta konponbideak</i> | |
| <i>Denbora (orainaldia ala lehenaldia? Ordena: kronologikoa ala saltoak denboran?)</i> | |
| <i>Narratzailea (1. pertsonan ala 3. pertsonan? Orojakilea, protagonista ala lekukoa?)</i> | |
| <i>Ekintzen narrazioa, azalpenak, deskribapenak eta elkarrizketak identifikatu</i> | |

4. **Kontaketa-laborategia.** Bideoan aipatu dituzten kontalaritza-estrategiak lantzeko, esperimentu batzuk egingo ditugu: esaldi eta testu laburrekin jolastuko dugu, talde txikietan jarrita (4-5 lagun).



- a. **Tonua:** “Gaur amonaren etxera noa” esaldia esan, ahotsa aldatuz: otsoa izanda, umea izanda, triste, pozik, gogaituta, haserre, misteriotsu... bururatzen zaizkien aukera guztiak erabilia, txandaka.
- b. **Pertsonaien izaera:** Ahotsa eta keinuak. Aurkezpen txiki bat egin. Adib.: “Otsoa naiz eta jan egingo zaitut!”. Pertsonaiak aldatzen joan: gaiztoa, eroa, inuxentea, lotsatia, bihurria, lotia, erretxiña, alaia, tristea, kexatia...
- c. **Espazioa:** “Ikusi, hor/han dago!” eta “Badator, badator...” esaldiak erabili. Egoera: iratxo bat, erraldoi bat, txori bat, mamu bat, erle bat... guregana gerturatzen ari da.
- d. **Inprobisazioa:** Taldeko pertsona bakoitzak hitz bat esango du, eta 4-5 hitzak paper batean idatziko dituzte. Guztien artean istorio txiki bat asmatuko dute, 4 hitz horiek erabilia. Bat-batean egitekoa, istorioa idatzi gabe. Gero kideei kontatu.

5. Kontaketan trebatzeko lanketa posibleak

• JOLASA

Jolas bat egingo dugu, gorputz-adierazpenaren garrantziaz jabetzeko. 4-5 laguneko taldeetan banatuta egingo dugu. Hitzen ordeztu, *bala-bala hizkuntza* erabiliko dugu (hitz egin beharrean *bala-bala* esatean datza). Zakutxo edo poltsa batean sentipenekin lotutako hainbat hitz sartuko ditugu, papertxoetan idatzita: *harridura, beldurra, tristura, barregura, etsipena, nazka, haserrea, poza, jakin-mina...*



Talde bakoitzak bere papertxoak izango ditu (talde guztiek berdinak), eta taldekideak bertatik paper bana ateratzen joango dira, ondokoei erakutsi gabe. Hala, taldekide bakoitzak *bala-bala* hizkeran bere kontaketa egin beharko du, besteek hitza asma dezaten (adibidez, tristura baldin bada: aurpegi triste jarriko du, tonua baxua izango da eta erritmoa motela; hasperen egin dezake eta baita negar ere; eskuekin aurpegia estali, burua makurtu...). Jolas honen helburua, ondo pasatzeaz gainera, gorputz-adierazpenaren eta hitzezkoak ez diren baliabideen garrantziaz ohartzea da.

Ondo legoke ariketa grabatzea, gero beren buruak ikusi ahal izateko.

• MIKRO-IPUINAK

Mikro-ipuinak erabiliko ditugu langai gisa, eta bi lanketa sakon egingo ditugu mikro-ipuin horiekin.

1. Ahoz gora irakurtzea: irakurketa antzeztua
2. Ipuin-kontakteta

Bi molde ezberdin dira, eta bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Jarduera honen helburua biak lantzea da, eta bi moldeen ezaugarriez jabetzea. Izan ere, literatura eta ahozkotasuna askotan ez datoz bat: ipuin batzuk irakurtzeko aproposagoak dira kontatzeko baino.

Hasteko, binaka ipini eta bikote bakoitzak gustuko mikro-ipuin bat aukeratuko du (posible da beraiek asmatua izatea ere). Adibiderako, mikro-ipuin hau erabil dezakegu (mikroipuinak.eus webgunetik hartua):

AMAIERA

Boligrafoa neke itxurarekin gerturatu zait.

—Ezin dut gehiago! —ziurtatu dit berehala—. Agortuta nago!

—Ni ere bai —onartu diot.

—Bi urte daramatzat zure ipuinak idazten —gaineratu du—, eta laburrak izan arren jada ez zait tintarik gelditzen.

Kexua espero nuen, ezer ez baita betirako. Nik ere ideiak agortu ditudalakoan nago, baina hala ere, azken ahalegin bat eskatu diot:

—Lagundu ipuinak zenbatzen.

Halaxe egin dugu. Banan-bana zenbatu ditugu ipuin guztiak 99ra iritsi arte.

—Ehun ipuin idazteko erronka jarri nion nire buruari —esan diot orduan boligrafoari—. Gai ikusten al zara azken ahalegina egiteko?

—Zuri zer iruditzen? —erantzun dit harro, nire eskura salto eginez.

Pentsakor gelditu naiz une batez, azken ipuina izango denaren gaia erabakitzeke. Berehala ohartu naiz, ordea, ez dela oso erabaki zaila, eta boligrafoaren tinta-hondarrak astinduz azken ipuinaren titulua idatzi dut: AMAIERA

- 1. Mikroipaina ahoz gora irakurriko dugu.** Horretarako, Pako Eizagirrenen azalpenak kontuan izan ditzakegu, aditua baita lan horretan (Aittu.eus webgunearen sortzailea da): [Testua ezagutu eta barneratu](#) (00:30-01:40)

Aukeratutako testua aztertu, eta taldekide bakoitzak zer zati irakurriko duen erabakitakoan, tonoa eta erritmoa erabakiko dute, probak eginez: zer tonotan

irakurri (umorezkoa, serioa, lasaia...), pertsonaien ahotsak nolakoak izango diren, non egin geldialdiak, zer hitz nabarmendu...


Testua barneratuta dutenean (markatu egin dezakete, nahi badute):

- a. Ahoz gora irakurriko dute, kideen aurrean. Ahotsak grabatu (bideoan ere graba daiteke. Adibiderako: [Txirri, Mirri eta Txiribiton oporretan](#)).
- b. Sentsazioaren berri emango dute: *Gustura sentitu al zara? Eroso, deseroso? Urduri, lasai? Disfrutatzen, bukatzeko irrikitan? Beldurrik piztu zaizu (gaizki egitekoa, erridukulua egitekoa...)?*
- c. Gustura geratu ez badira, hobeto prestatu, eta berriz irakurri eta graba dezakete (adibidez, bakarrik egonda).
- d. Bi aukera posible:
 - Audio-ipuina egitea: ahotsari musika eta soinuak gehitzea (edizio-programaren bat erabiliz).
 - Bideo-ipuina egitea: ipuina bideo bihurtzea, marrazkiak/irudiak, soinuak eta musika ipinita (edizio-programaren bat erabiliz). Adibiderako ikus [Aittu.eus](#) webguneko ipuinak.
- e. Emaidza kideekin partekatu, eta sare sozialen bidez ere bai.

2. Mikro-ipuina kontatzeko garaia da orain! Irakurtzea eta kontatzea ez dira gauza bera. Desberdintasun nagusiak:

- Publikoaren aurrean zaude: zein da hartzailea? Ez da gauza bera 3 urteko umeei ala helduei kontatu. Ikus [Doña Karmenen ipuina](#).
- Gorputz-adierazpena: ahotsa bezain inportantea da, edo gehiago! Begiradak, keinuak, espazioaren erabilera...
- Ez duzu paperik behar: ez zara testuan oinarrituko. Istorioaren eskema ezagutzea da garrantzitsuena.

Aurreko adibidera joko dugu, “*Amaiera*” izeneko mikro-ipuinera:



Moldaketa posible bat:

Ez dakizue zer gertatu zaidan! Gaur boligrafoak ez dit ba boikota egin? Bai, boligrafo honek (poltsikoan izan dezake, agerian, eta seinalatu). Ipuin bat idazteko hartu dut eta (boligrafoa eskuan hartu; beste eskuan paperak izan ditzake):

-Ezin dut gehiago! Agortuta nago! (boligrafoaren ahotsa eta kontalariarena diferenteak izango dira: adibidez, boligrafoak baxu eta astiro hitz egin dezake, kostata, nekatuta dagoelako)

Agortuta? Ai ene... (publikoari begira)

-Puff... Ni ere bai (neke keinuren bat egin: burua makurtu, putz egin...)

-Bi urte daramatzat zure ipuinak idazten, eta, laburrak izan arren, jada ez zait tintarik gelditzen. (boligrafoari begira)

Ez da harritzekoa... (publikoari begira) Ehun ipuin idazteko erronka jarri nion nire buruari! (erronkaren handitasuna nabarmentzeko, 'ehun' hitza indartu) Kexua espero nuen, bai, ezer ez baita betirako... Nik ere ideiak agortu ditudalakoan nago, baina hala ere, azken ahalegin bat eskatuko diot:

-Lagundu ipuinak zenbatzen, faborez (boligrafoa begien parean ipini eta hari hitz egiten, "errukitu nitaz" keinuarekin).

Halaxe egin dugu (boligrafoarekin paperak zenbatzeko keinua egin). Bat, bi, hiru... hamaika, hamabi... Banan-banan zenbatu ditugu ipuin guztiak 99ra iritsi arte. 99! Aiba! Bakarra falta da ehunerako!

-Gai ikusten al zara azken ahalegina egiteko? (ilusio-aurpegiarekin, boligrafoari)

-Zuri zer iruditzen? (boligrafoaren ahotsa aldatu egingo da: indartsua da orain; gora eta beheara mugituko du, saltoka ari balitz bezala)

Ikusten duzue? Paparra puztu zaiot! Bai, hori da nahi nuen jarrera! (pozik)

(Pentsakor geldituko da) Jo, baina zeri buruz idatzi dezaket? Azken ipuina da... Badakit! (boligrafoaren tinta-hondarrak astinduz, letra batzuk idatziko ditu paper batean, eta gero publikoari erakutsi, pozik):

AMAIERA

Eskema posible bat. Buruan izan behar ditugun ideiak, ipuina kontatu ahal izateko (kontatzerakoan, hitzak berez aterako dira, eta berdin du ez badira testuko berak!).

Adibidez:

Boligrafoa kexuka: agortuta
2 urte lanean: 100 ipuin idazteko erronka
Zenbatzen lagundu! 99 ipuin: 1 falta!
Azken ahalegina

Pauso posibleak:

1. *Bikote bakoitzak bere mikro-ipuina moldatuko du: kontatzeko bertsio bat egin.*
2. *Ipuinaren eskema egingo dute: ideia nagusiak atera*
3. *Kontaketa prestatu. Binaka presta dezakete, elkarri laguntzeko, baina gero bakarka kontatuko dute. Izan ere, pertsona bakoitzak bere erara kontatzen du, bere estilora, bere hitzekin eta keinuekin. Hori du polita ipuin-kontalaritzak. Aurrez landutakoak kontuan izango dituzte:*
 - Tonua eta erritmoa: umorezkoa, tristea, misteriozkoa... Zein da hartzailea?
 - Erritmoa: bizia, motela, aldakorra, isiluneak...
 - Pertsonaien izaera: ahotsak, keinuak
 - Hizkuntza-baliabideak: onomatopeiak, esamoldeak, errejistroak...
 - Gorputz-adierazpena: keinuak, begiradak, mugimendua, espazioaren erabilera, arnasa...
4. *Ipuin-kontaketa egin, kideen aurrean. Bideoan grabatu.*
5. *Ipuin-kontaketa publikoari zabaldu. Hiru aukera:*
 - Grabazioa editatu eta sare sozialetan zabaldu.
 - Emanaldi txiki bat antolatu, gonbidatuekin.

• IPUINAK ASMATU

Ipuinak/istorioak asmatzea, gero kontatzeko: horixe izango da erronka. Ipuina norberak sortutakoa denean, barrurago sentitzen dugu, eta sentimendu gehiagorekin kontatu ohi dugu. Hasteko, hauxe da parte-hartzaileei galde diezaiekeguna:

- Zer kontatu nahi duzu? Zer iruditzen zaizu interesgarria?
- Zer entzungo zenuke edo entzuten duzu gustura? Nolako istorioak gustatzen zaizkizu?

Bidea errazteko, bi proposamen ditugu:

A aukera. Aurpegiak eta keinuak ikusita, istorio bat asmatzea. Karrere eta Ameli ipuin-kontalarien fotogramak erabiliko ditugu. Ikasle bakoitzak bietako bat aukera dezake:





Zortzi fotograma horiek izango dira ipuinaren bizkar-hezurra. Eskema klasikoa erabil dezakegu:

- *Hasiera*: pertsonaia batzuk, leku bat eta egoera bat deskribatu
- *Korapiloa*: arazo bat, gertaera batzuk azaldu
- *Bukaera*: istorioa ixteko modu bat (ez dauka amaiera alai izan beharrik)

Pausoz pauso:

- Istorioa pentsatu, eta zenbaki bakoitzaren ondoan gertatzen dena idatzi, esaldi gutxitan
- Istorioa kideekin partekatu: fotograma bakoitzean zer jarri duzun azaldu
- Istorioa kontatu, paperik erabili gabe, ateratzen diren hitzekin (berdin du istorioaren zatiren bat ahaztuta/aldatuta ere). Aurretik landutakoak kontuan izan (tonua, erritmoa, espazioa, keinuak, begiradak...).

B aukera: Ipuin ezagunak aldatzea, neurri batean egitura nagusia mantenduta. Adibidez, *Txanogorritxo makarra bat da (ez du amonarenera joan nahi), otsoa ez da gaiztoa (amonaren etxera laguntzen dio) eta amona ez dago etxean (oporetara joan da).*

Ipuina prestatu eta kontatu. Aurretik landutakoak kontuan izan (tonua, erritmoa, espazioa, keinuak, begiradak...).

• HIZKUNTZA LANTZEN


Hizkuntza-baliabideak oso inportanteak dira kontatzeko garaian. Euskara jator eta aberatsa erabiltzeak kolorea ematen dio kontakizunari.

Gure aitona-amonek, esaterako, euskara oso aberatsa dute. Ikus bideo hau, eta hitz egiteko moduari erreparatu (besteak beste, darabiltzaten onomatopeiak apuntatu): [Ipuinak eta txisteak](#) (proposamen pedagogikoak ere baditu bideoak).

Onomatopeiak aldatu egiten dira hizkuntza batetik bestera. Euskarazko onomatopeiak landuko ditugu. Hona hemen adibide batzuk:

*Kolpea makilarekin (**kaska!**) kolpea atean (**dan-dan!**) jipoia (**dinbi-danba**) masailekoa (**zapla**) erori (**plaust**)
 pausoak (**tipi-tapa**) zurrunga (**zzzzz**) haginkada (**drausk**)
 edan (**dzanga-dzanga**) ura irakiten (**bor-bor**) zerbait
 puskatu (**krask**) zerbait ireki (**kliski-klaska**) leherketa (**braun**)
 uretan ibili (**plisti-plasta, txipli-txapla**) tripa-hotsa (**grrrrr**)
 barre motak (gaiztoa, urduria, alaia, bihurria... **jojojo, jijiji, jajaja, jejeje**) zaldiaren trosta (**trakatan-trakatan**) euri
 erauntsia (**zarra-zarra**) trumoa, tximista, motor hotsa (**burrun
 burrun**) tantoak erori (**tan-tan-tan**)
 azkar (**zirt-zart, ri-rau**) kolpera agertu (**braust**)
 txakurra (**zaun-zaun, txau-txau**)*

Onomatopeia gehiago ipini ditzakezu! Animalienak, adibidez.



Pertsona bakoitzak egoera bat, istorio labur bat asmatuko du, onomatopeiak erabiltzeko: gutxienez 3 onomatopeia sartu. Adibidez:

Aurrekoan kalean zehar nindoan, *tipi-tapa, tipi-tapa*, lasai asko, eta bat-batean *krask...* zerbait zapaldu nuen! “*Ai ama... zerbait apurtu dut*”. Makurtu egin nintzen zer zen begiratzeko, eta ez nuen ezer ikusten... baina bat-batean *braust!* Igel berde bat agertu zen!

Sortutako istorioa kideei kontatu. Kontatzeko garaian, aurrez landutakoak kontuan izan (begiradak, keinuak, espazioa...)!

**Guri eskerrik beroenak Ameliri eta Joxe Mari Karrereri,
proiektua honetan parte hartzeagatik**

KONTAKETA ON!